

Gipuzkoako landa eremuak, hiriko bizilagunen pareko konexioaz gozatzendu jada

Landagipuzkoa programari esker

Dagoeneko banda zabal ultraazkarra herri txikietako 2.000 baserrietara iritsi da eta 2020-23 legealdian Gipuzkoako Foru Aldundiak Landagipuzkoa programa bultzatzen jarraituko du



300 mega segundoko abiadura nabigatzea edo telebistako plataforma digital aurreratuenekin bat egitea dagoeneko egingarria da Gipuzkoako herri txikietan.

Aurrerapena, oso esanguratsua da, orain arte populazio handieneko inguru eta landa eremuaren artean egondako eten digitala desagertzen hasi baita.

Definizio altuan telesail bat ikustea, distantzian buruturiko hezkuntzarekin bat egitea, on line jolastea edota internet bitartez senitarteko batekin harremanetan jartzea dagoeneko egin daiteke Gipuzkoako herri txiki askotan.



Gipuzkoako Foru Aldundia ez da lorturikoarekin konformatzen eta herri txikien erdiguneetatik haratago dauden etxe eta ustategietan ultraazkarrak diren komunikazio-sareen zabalkundea gogotik sustatuko du.

Landagipuzkoa egitasmoaren helburua, baserria edonon egonik ere, diskriminaziorik ez egotea da, ez teknologia mailan eta ezta prezioan ere: **herri txikienetako biztanle gehienek hiriguneetan bizi biren pertsonak dituzten baldintza berberak izatea nahi da.**



Banda ultraazkarraren datu aipagarriak:

ZER? 300 mega/segundo-ko konexioa datuen iguera eta jaitsieran, konektibitate ultraazkarra deritzona.

NON? Instalazioa 2.500 biztanle baino gutxiago duten Gipuzkoako herriguneetatik 2 kilometrotara baino gertuago kokaturiko eraikinetan gauzatu da (batez ere baserriak edota bestelako nekazari-instalazioak, etxebizitzak, jatetxeak).

NOLA? Lorturiko hobekuntzak:

- o Interneterako sarrera: interneterako sarrera konexio ultraazkarraren bitartez.
- o Telebista.
- o Bideozaintza:
 - Bakarrik bizi eta arreta berezia behar duten pertsonak zaindu ahal izateko: hirugarren adinekoak edo desgaitasunen bat duten pertsonak.
 - Azienda urrutitik zaindu ahal izateko.
 - Urrutitik lan egin ahal izateko.
 - Urrutitik gunek ezberdinak zaindu ahal izateko.

2018 urteko lehiaketan Gipuzkoako Foru Aldundiaren inbertsioa 2.356.000 Eurokoa izan da.

INFORMAZIOA

943 337 556 | www.landagipuzkoa.eus | etorlur@gipuzkoa.eus